

GASTEIZKO EUSKALDUNON ALDIZKARIA

45. zk. 1996ko iraila

geu gasteiz

FRANKEO ITUNDUA 48/27



anhai

Euskara Mingainean erronkarik gogorrena



**Anhai Arbaizar
itsasoko erregin
arabarra**

**'Lezio berri bat
Ostrukari buruz'
Bernardo Atxagaren
ipuina oso-osorik**

GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
UDALETXEA	PRENTSA KABINETEA GIZARTE ONGIZATEA (ARGIBIDEAK) GAZTEEN ARGIBIDEETARAKO BULEGOA PERTSONAL SAILA IDAZKARITZA	Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g	16 13 37 16 13 44 16 13 30 16 11 41 16 13 20	16 13 60 16 16 53
BULEGO TEKNIKOAK	ARGIBIDE ETA ERREGISTRO BULEGOA ERROLDA ETA SOLDADUTZA BORONDATEZKO DIRU-BILKETA ZERGEN GESTIOA INGURUGIROA	Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11	16 11 87 16 11 06 16 16 68 16 11 33 16 11 20	16 11 88
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMA- ZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40	
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 89	16 14 99
ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88	
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70	
HEZKUNTZA SAILA (IME)		Fray Zacarias	16 12 16	
GIZARTE ETXEAK	JUDIMENDI LANDATXO IPARRALDE ABETXUKO ARIZNABARRA	Urriak 12 kalea, z/g Santa Maria kalea, 4 Zuberoa plaza, z/g	16 17 40 16 16 82 16 17 60 24 47 14 13 36 91	
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK-KULTURA BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 31 16 12 61	
KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAKO BULEGOA			13 36 91	



Zuzendaria:

JOSU KINTAS

Erredakzioburua:

XABIER ZABALETA

**Erredakzio-
batzordea:**

LEIRE LOPEZ DE
ABERASTURI

ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL

LOREA ZURIMENDI

MIEL ANJEL ELUSTONDO

DAVID ALVEZ

EDU LOPEZ DE LUZURIAGA

Maketazioa:

ALEX BADILLO

Itzultzailea:

IÑAXIO LOPEZ DE ARANA

Komikia:

IÑIGO SARASOLA

Marrazkiak:

AITZIBER IRIONDO

Publizitatea:

KARLOS FDEZ. DE BETOÑO

Argazkilariak:

EDORTA SANZ

LUKAS ETXEBERRIA

JOSEBA UNZALU

Kolaboratzaileak:

TXIPI ORMAETXEA

JUAN JOSE KASTRESANA

IÑAKI GAUNA

TXABI ARNAL GIL

MIKEL GARMENDIA

INPRIMATEGIA:

GERTU KOOP. E.
(ZUBILLAGA, OÑATI)

Trebiño eguna



UDA Elkarteak Trebiño Araba dela aldarrikatzeko gaur eguneko formatoarekin antolatzen duen hirugarren Trebiño Eguna ospatu genuen iralaren 8an. Hiru urtez, 1994an hasita, baliatu gara Trebiñoren auzia ezagutarazteko eta trebiñotarren eskubide kolektiboen defentsarako dugun tresnarik eraginkorrenaz. Trebiñotarrok gutxi gara, mila bizilagun besterik ez, baina Trebiño Egunean, milaka lagun elkartasunari esker, herri honen ahotsa ozen eta garbi entzuten da Euskal Herrian, Gaztela-Leonen eta are Estatuko hiriburuan ere. Hau dela eta, Trebiño Eguna hurbiltzen den jendetza termometro ezin hobea da Trebiñoren auziak kalean eta jendearen artean duen interesa neurtzeko.

Herria berriro aitzindari bilakatzen da eta urteotan Trebiño Egunean parte hartzen dutenen bultzada hasi da mugitzen oraintsu arte lurrean tinko erroturik ematen zuen arroka eskerga. Azken hilabeteotan, esaterako, pauso itxaropentsuak eman dira: Senatuko Ponentziaren Diktamenaren ildotik Gaztela-Leongo Gorteek eta Euskal Legebiltzarrak beren gobernuai agindu diete Trebiñoren auzi politikoa lantzeko Batzordea eratzeko; Trebiño barrutik Zortzigarrena fundazioa sortu da eta Arabako gizarte gehienaren laguntza eta lankidetzak merezi izan du (garbi dago Trebiño Araban integratzeko protagonista Trebiño bera dela, baina protagonistakidea arabar gizarteak da ezinbestean). Hau guztia eta gehiago lortuko da herritarren bultzada dagoen bitartean: nolabait esanda, Eusko

Jaurlaritzak du orain pilota bere teiltuan, berak mugitu behar du fitxa Gaztela-Leongo gobernu Trebiñori buruzko Batzordean lanean jartzeko.

Trebiñok esperantza osoa du Arabako eta Euskal Herri osoko herritarrengan jarrita. Jendearen elkartasun eta adorea da arnasa ematen diguna, bestela jai dugu! Trebiño bera bakarrik hutsaren hurrengo da estatistika aldetik zenbaiten aburuz, hiritar gutxiegi (mila inguru) Estatu mailako, tamaina izugarritzko arazoa planteatzeko beste zenbaitentzat. Zorionez bada pentsatzen duena justizia ez dela dosifikatzen eragindako hiritarren kopuruaren arabera, eta trebiñotarrok milioia izan beharrean mila izateak ez diola kentzen auziari ez legimitaterik ez konpontzeko premiarik.

Beraz, Aizu, Trebiño hortxe duzu! lemapean ospatu zen aurtengo Trebiño Egunean zuek emandako bultzadatxo eta elkartasuna eskertu nahi dizuegu. Trebiñoko jendeak La Puebla Argantzunen jai egitarau zabala prestatu zigun: musika, herri kirolak, artisautza, herri bazkaria, antzerkia, txosnak, dantzak...; egun horretan etorri zineten guztioi zuen parte hartzea eskertzen dizuegu. Mila esker, lagunok!

PEDRO PORTILLA MORAZA
UDA ELKARTEAREN
PRESIDENTEA

gasteizko euskaldunon aldizkaria

Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53

argitaratzailea:

GEU

6.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92

GEU GASTEIZEK ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

geugasteiz aldizkaria etxean dohain jaso nahi dut.

IZENA:

ABIZENAK:

KALEA:

Kode Postala:

HERRIA:

Pisua:

ZKIA:

KALEA

Garraio kontuak

Itxuraz,
laster izango
dugu tranbia
Gasteizko
kaleetatik
zehar. Argi
dago Bilboko

metroarekin konparatuz, Gasteizko tranbiaren proiektua hutsaren parekoa dela, baina bistan da Udalak serioski hartu duen kontua dela. Jadanik erabakita dauden bi enpresek, tranbia-proiektuaren bidegarritasuna eta ibilbidearen azterlanari ekin diote, eta neguan izango ditugu hauen emaitzen berri.

Dena den, garraio kontuetan ez da hau Udalak buruan duen alternatiba bakarra. Antza, egungo autobus geltokia

1.- Zer iritzi duzu autobus geltokia Lakuara eramateari buruz?

2.- Nola ikusten duzu Gasteizen tranbia izatea?



IRATXE
PZ. DE ARRILUZEA
ikaslea

- 1.- Gaizki iruditzen zait. Ni askotan joaten naiz eta betiko lekura joaten ohituta nago.
- 2.- Ideia ona dela uste dut, batez ere ekologikoagoa izango delako.


Bertsoak

mintzo

iraila

Berriro ere aurten iazko jarrera bera hartu du joan egin da baina zergatik ez gaude horren seguru. Ezin daiteke inola jasan barruan hainbat apuru negar batean pasa ditugu hamaika ordu inguru gure Abuztu, denon Abuztu itzul zaitezen nahi dugu.

Orain Iraila hurbildu zara amoranteen pareko denborarekin gure bihotza agian duzu beteko hala behar ta halabeharrez gauzkazu zure menpeko gure alboan zu izatea nahiz eta ez den kalteko jakin ezazu hura adina ez zaitugula maiteko.



EGILEA:
Asier Iriondo
DOINUA:
Mutil koxkor bat



Bejondeigula !

Duela hainbat hilabete handitu genuen aldizkariaren tirada. Dena den, agortu egin zaigu berriro ere. Beraz, izena oraintxe eman diguzutenok ez duzue momentuz jasoko. Pazientzia izan.



ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37

TXVSTA
TABERNA

ESPEZIALITEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea
GASTEIZ

AMILAMIA
arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ



ITZIAR MENDIGUTXIA
ikaslea



JOXEAN ZUBELDIA
irakaslea



AXUN AROZENA
kazetaria



ALBERTO ELEJALDE
aktorea



J. BETOLAZA
langabea

1.- Primeran. Lakuan kokatzea komenigarriagoa litzateke oraingo lekuan baino.
2.- Nire ustez azkarragoa eta modernoagoa izango da. Halere atera berri dituzten azken autobusak ere modernoak eta ekologikoak dira.

1.- Ez zait iruditzen Gasteizek duen biztanle kopurua eta zabalera edukita geltokia Lakuara eraman behar denik.
2.- Hiriko garraioak nahiko hornituak daude beste zerbaite gehiago edukitzeko. Ez dut uste beharrezkoa denik.

1.- Ez nago ziur, baina Lakuan jarritz gero ondo legoke, auzo hori lotuagoa egongo baitzen.
2.- Erdialdean bizi direnentzat tontakeria hutsa da, baina kanpoaldeko auzoetan bizi direnek ezberdin pentsatuko dute...

1.- Autobus geltokiak erdialdean egon behar du, bestela ez dauka zentzurik. Oso gaizki legoke Lakuara eramatea.
2.- Politu litzateke, baina Gasteiz bezalako hiriei ez dute horren beharrik.

1.- Orain dagoen lekuan utziko nuke, baina hiri erdialdetik kanpo jartzea ere ulertuko nuke.
2.- Gasteiztarrentzat aurrerapen handia izango balitz onartuko nuke, baina komenigarriagoa litzateke orain ditugun garraioak indartzea.



txapelketa

a

Kaixo lagunok! Arabari buruzko galderak asmatzen buruari hainbeste ekin ondoren, imaginazioa amaitu zaigu. Zer deritzozue aurrerantzean argazki zaharren



b

inguruko informazioa bidaltzera gonbidatzen bazaituztegu? Noski, sariak banatzen jarraituko dugu.



Gasteizko zein kaletan aterata daude 'a' eta 'b' argazkiak
Mikeldi Zinemaren eskutik azken estreinuak ikustera joan zaitezke

Uetzal
Hegoamerikako
jantziak ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoren
kantoiaaren ertzean Tfnoa: 25 03 52

EDAN • JANTEGIA

Oleaga

ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

**Karta betiko eta oraingo
platerekin**

**Eguneroko Menua
Betiko kazuelatxoak**

<MARTXA HANDIAGO DAGO OSTEGUNETAN LARUNBATETAN BAINO>

Nor da?

❑ Euskaraz ezagutu genuen eta halaxe komunikatu izan gara geroztik. Elkar hizketa egin behar, ordea, eta aitzakiatan da. <Lehen arintasun handiago nuen euskaraz: irakurtzen nuen, idazten nuen... Baina kanpoan ibili naiz estudiantzen -

Bartzelonan urte bat eta Madrilén bost-, eta pixka bat galdu egin dut erraztasuna>. Urak bere bidean dira, dena den, atzera berriro. <Orain, sei hilabete baino gehiago daramat Gasteizen eta ondo moldatzen naiz euskaraz ere, baina lehenengoetan... Pertsona nagusiak etorritz gero, ondo; baina Eusko Jaurilaritzakoak edo euskaraz asko dakitenak etortzen direnean, kezkatzen egoten naiz, euskaraz jakin arren>.

❑ Leire Ajuria da eta Bilbon jaio zen, ama Durangokoa zuenez, edo Matienakoa. Matienan, Ubiden eta Gasteizen banatuta ematen du denbora Leirek. <Ubidekoa daukat lagun kuadrila eta han izaten naiz asteburuak>. Ez alferrik! Gasteiza etortzen dira handik! <Lehenengo hona eta gero herriko jaietara: Otxandiora, Gopegira, Murgilara...>.

❑ 1.972ko uztailaren 22koa da. Kanzer. <Jeniodunak garela esaten dute baina nik ez

daukat batere>. Batzuetan besterik ez du irakurtzen horoskopoa. <Lerdokeria pila bat jartzen dute beti>. Ez dio fede handirik. <Ezaugarri nagusiak zuzen adierazten dituzte, baina asteko horoskopook-eta ez du ezer esaten. Niri, adibidez, bidaiak agintzen dizkirate beti eta, azkenean, ez naiz inora joaten, Durangora ez bada>.

❑ Gasteizen bizi da Elorrioko lagun batekin, osaba-izebenean Ubiden, eta guraso eta neba-ahizpekin Matienan. <Gasteizen nagoenez eta Matienara joan behar dudanez, Ubiden gelditzen naiz, erdian dago-eta. Batzuetan Ubiden nago asteburuan, Matienan arropak hartzen, gero berriz hona...>.

❑ Mendia Optikan egiten du lan. Optiko da bera eta Plaza Berriko dendan dago.

❑ Orainsu burutu ditu optiko ikasketak eta ez du astirik izan bere afizioak zein diren erabakitzeko. <Bidaiak, beharbada>. Badaki nora joan nahiko lukeen. <Mauritaniara. Bada optiko talde bat hara joaten dena, Hirugarren Mundukoei laguntza ematen-edo. Dena den, denbora, dirua eta dena behar duzu>.

LEIRE AJURIA



Gasteiz, Ubide ala Matiena?
Ubide, dudarik gabe. Ubide.

Gasteiz, Gasteiz-Vitoria, Vitoria-Gasteiz, Vitoria?

Hemen, Gasteiz. Atzerrian, beharbada, Vitoria. Baina hemen, Gasteiz.

Non biziko zinateke gustora?
Oraindano ez dakit.

Zer da Gasteizek duen onena?

Ez dela ez oso handia, ez oso txikia.

Zer falta zaio?

Hondartza.

Norekin egin ohi duzu euskaraz Gasteizen?

Elorrioko lagunarekin, beste lagun batzuekin -irakasle dira zenbait-,

Kepa Mendiarekin berarekin, Los Herraneko Mendia Optikan lan egiten duen beste langile batekin -Leire da hura ere-, eta beste zenbaitekin...

Zein da oraintxe duzun kezkarik handiena?

Gida baimena eskuratzea. Ez da kezka handia, hala ere.

Azkenengo momenturik txarrena?

Ez daukat gogoan.

Zinezalea?

Apurtxo bat.

Aktore-aktoretarik?

Mel Gibson, adibidez.

Jeniorik ez ei duzu. Dena den, zerk ateratzen zaitu zeure senetik?

Askok diskutitzen duen jendea.

TESTU LIBURUAK
eskatu zure testu liburuak
eta ez estutu gero

Koldo Mitxelena • deskontu bereziak

zure euskal
LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

2 **errikoia**

**ZAPA
TERIA**
kalean



Asko diskutitzen duen jendea. Baina esan dudana: ez naiz zeharo haserratzten.

Zer eramango zenuke irla bakarti batera?

Janari pila.

Oporretan nora?

Mauritaniara, adibidez, edo Amsterdamera: ez naiz han izan baina oso polita izan behar du.

Bidaia asko egin duzu?

Ez. Espainia osoa ibili dut, eta Parisen ere egon naiz, Baina ez naiz urrutira iritsi.

Oporrak zertarako?

Ondo pasatzeko, lagun berriak egiteko, bazter politik ikusteko...

Aukeratzetik bazenu, nola hilko zinateke?

Azkar. Ohera joan eta hurrengo egunean gehiago ez esnatuta.

Zenbat denbora ematen duzu ispilu aurrean?

Nahiko. Batetik, goizez eta arratsalde, optikara etorri baino lehen; bestetik, gauean, irteten banaiz. Ohera joan baino lehen ez naiz ispilu aurrean jartzen.

Jatun ona?

Baiii.

Menu goxoa?

Itsaskiak, esaterako. Edo pintxoak jatea. Gasteizen oso onak daude. Denetik jaten dut, dena den. Ez naiz oso postrezalea. Gauza gaziak gehiago gustatzen zaizkit gozoak baino.

Nolakoa beharko luke zure bikote lagunak?

Izakera irekia beharko luke, guztiekin hitzegin.

Nolakoa litzateke mundua emakumeek gobernatuko balute?

Antzekoa. Pixka bat hobe, beharbada. Baina emakumeek bakarrik gobernatuta, txarto.

Liburuzalea?

Tira. "Elizondoko eskutitzak" gogoratzen dut, aspaldi irakurri banuen ere; Gotzon Garaterena. Edo Atxagaren bat.

Zure bizioak?

Lo egitea. Baita lokuluxka ere.

Bertuteak?

Jende asko ezagutzen dudala, beharbada.

GEU ezagutzen duzu?

Bai. Aldizkaria da, ezta? Optikan jasotzen dugu. Hobeto ezagutzen dut "Eraz", Durangoko aldizkaria. Antzekoa da.

Telebista programaren bat?

Ez dut askorik ikusten; gutxi, baizik. Eguerdian albistegiak, edo gauean. Noizean behin, pelikularen bat... Ez naiz oso telebista zalea.

Musikarik?

Bai, Hertzainak, edo Bruce Springsten

Ez duzu bizkaieraz berba egin.

Norekin nagoen, diferente egiten dut. Ubideko amama batekin hitzegin edo Gasteizko inorekin hitzegitea desberdina da. Bestalde, nik ez dut bizkaieraz-bizkaieraz hitzeginen: nahastuta egiten dut. Ikastolan, lehenengo bizkaieraz hasi ginen, eta gero batuaz. Batueraz ikasten genuen eta bizkaieraz hitzegin. Bartzelonan ere euskaldunekin egon nintzen eta hainbat lekutakoak ginen. Azkenean, nahastea daukat. Denetik egiten dut.

Zein galdera nahi zenuke nik zuri egitea?

Praktiketako kontratuei buruzko galdera.

Zer diozu praktiketako kontratuen gainean?

Oso txarto daudela.

Miel Anjel Elustondo

Floridako altxorra !

35

adaka **madinabeitia**

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

non da euskal(dunon) kantua?

Euskal Herriak hamaika ezaugarri ditu musikarekin estuki lotuak daudenak, hala nola euskal dantzak, bertako musikatresnak, bertsolaritza... Hauek guztiak gure Herriaren definizioaren osakinak dira, eta nahitaezkoak ditugu. Herri izateko, arrainak uraren premia duen bezala, poetak -kantari haren hitzetan- oinazea behar duen era berean.

Hala ere, hau guztia jakin arren, minutuoro, segunduoro, ur tanta bat kentzen diogu arrainak bizileku duen ibaiari. Izan ere, izugarritzko trebetasuna dugu euskaldunok geure kultura -eta historia, bide batez- baztertu eta ahazteko. Esate baterako, jadanik ia erabat galdua dago, batez ere Hego Euskal Herrian, mendeetan zehar ezaugarri garrantzitsuenetarikoa izan dugun kantatzeko zaletasuna. Hego Euskal Herrian diot, izan ere Iparraldean usadio alai honek nahikoa indartsu baitirau (Euskal Kantu Txapelketako partaideok ez dugu ahaztuko finalaren egunean hango lagunek bazkalorduan eskaini ziguten kantaldi paregabea).

Besoa altxa dezala azkenaldi honetan afalondoan kantari hasi den gazte-talderen bat entzun duen zorioneko horrek. Noski, ez du balio ohiko adibide tristeak, alegia, lauburua lepoan -eta jertsearen gainetik- jantzirik, "Euskal Herrian Euskaraz", la lala laa, la laa, la laa" -letra osoa ikasteko astirik ez, itxuraz- oihuka abestu (?) eta segituan "Mañana voy al Araba Euskaràs" bezalako esaldiak sufriarazten dizkigun taldearenak. Tira, agian, zorte pixka batekin kalimotxoak oroimen bizkortuko die, eta gutxienez Monzon-en *Lepoan hartu ta segi aurrera* historikoaren lehenbiziko ahapaldia ondatuko eta sarraskituko dute. Izan ere, zer motatako abertzalea da kantua hau buruz ez dakien hori?

Kantatzea oso zaila eta neketsua omen da, eta, dudarik ez, aparteko memoria ona behar da, dirudienez, betiko gure euskal kantuen doinu eta hitz aldrebesak gogoratzeko, are gehiago euskal kantua zaharren kasuan. Hortaz, iparraldeko euskaldunek besteok baino oroimen garatuagoa dute, ez? Gainera, zer dira *Atharratzeko gazteluaren* kantua ulerkaizta edo Iparragirreraren



garikoitz knörr

Glu, glu, glu sinplea, *El tractor amarillo* edo *La Macarena* bezalako abestien doinu eta poesia aberatsen aldean? *Un limón, medio limón* hunkigarria ez aipatzearren, noski.

Adiskide batek esaten zidan, orain dela gutxi, kantatzeko ohituraren gainbehera tabernetan giro-musika jarri zutenean burutu zela gure artean, errazagoa, erosoagoa baita entzutea norberak abestea baino. Egia da, baina nire ustez arazoa ez da tabernetan hasten, baizik heziketa jasotzen dugun leku eta giroetan: benetan urria, oso urriak dira haurrei euskal kantuak erakusten eta irakasten dizkieten irakasleak eta gurasoak, eta komunikabideek ez dute gehiegi laguntzen. Honek lehorte larria ekartzen dio heriotza geroz eta hurbilago dakusan arrain gaixoaren ibaiari, oraindik ekidin dezakegun -baina, ez ahaztu, batez ere guk geronek eragindako- lehorte lazgarria.

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ




MIKO

izozkiak

ZAHAR SENDO ZIÑDO
GASTEIZKO BATZOKIAK
ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

HOTS

GIDOIA: KOLDO HERNANDEZ
MARRAZKIA: JABIER HDEZ. LANDAZABAL



EJEMM, EJEMM...



hdez. landazabal (86)

1

KLASEAK

matematika
fisika irakaskuntza ertaina
kimika eta unibertsitatea
biologia
geologia ☎ 26 03 54



J
A
T
E
T
X
E
A



AGIRRE

ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA MUNTAI ELEKTRIKOAK

Santiago hiribidea, 46 - 1.A

Tfnoa: 28 09 46 MUGIKORRA: 989 50 73 18

GASTEIZ

Tu Invernadero
Zure Lore Sortak

ALDABE 6 BEHEA
tfnoa: 945 14 43 63 - 01001 GASTEIZ



Ederki


argazki estudioa
ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN
Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak
Estudioko argazkiak
Bideo industrialak
Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85



e
g
u
n
e
k
o

• GASTEIZ •
«PROBINTZIAKO ENPARANTZA»

.... BAINA....
ZER OTE DA HOR UTZI
DUTEN BURDINA HERDOIL-
DUZKO KUTXAZAR HORI?



Indur. Landagabal. 96

2

ZURE BETAURREKOAK 30 MINUTUTAN



ZERBITZU
OPTIKOETAN

1a




MENDIAOPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS

Zuri gero eta zerbitzu hobea ematen ahalegintzen garela eta, teknologia aurreratuenari esker, zure betaurreko graduatuak 30 minututan* eskeintzen dizkizugu. Eta zerbitzu optikoetan 1 aren garantiarekin, jakina.



EVSATL OKELA
LASAGABASTER
 harategia eta urdaitegia
 Portal del Rey, 24
 Tfnoa: 25 56 90
 GASTEIZ

vitrales

MIKEL DELIKA
BEIRATE ESTUDIOA
 Txikita kalea, 1
 Tf: (945) 14 64 10
 GASTEIZ

K2
KIROLDEGIA
CENTRO DEPORTIVO
 C/COMANDANTE IZARDUY, 18 TFNO: 945/23 05 36
 01006 VITORIA-GASTEIZ

Muskulazio-gela eta gela kardeobaskularra (500 m²) • 4 squash-pista arauzko • Rokodromoa (20m x 11 m) • Saski baloi indoor pista • 800 m²-ko aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrun-bainua, sauna erraldoia • Aerobik-gela (300 m²) • Mantenimendu-gimnasiarako gela • Tatami gela (250 m²) • Bilar frantsesean eta amerikarrear iharduteko mahaiak • Ping-pong mahaiak

ETA LASTER: Padel pista • 25 metroko igerileku estali-girotua • Balio anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoia,...



Iñaki Mendizabal 86

4

★ IZTABERNA
RA
JATETXEA

BITORIANO ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73





GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Korteria, 14 MIKEL DEUNAREN PASABIDEA
Tfno: 12 08 88
01001 - GASTEIZ

J A T E T X E A

H I O U A

Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat


- Musika eskola
- Dantza

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

NORK ESANGO ZIDAN
NIRI SEKULA TXATAR
PUSKA HONEN BARRURA
SARTU BEHARKO NUENIK!



BAINA ZER DA HAU? NON NAGO? HAINBESTE
URTE HONETAN ORAINTXE SENTITZEN DUT LEHEN
ALDIZ BENETAKO BELDURRA. ZER OTE DA HUS-
TASUN AMAITEZIN HAU? ZER ARI ZAIT GERTATZEN?
GORA JAITSI ALA BEHERA IGOTZEN ARI AL NAIZ?



5

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

ardatz itzulpen eta
euskara zerbitzuak

Xabier

musika ona
eta giro
ezinhobea **taberna**
Kutxileria 23





GYREA
jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33

NORA OTE NARAMA PASABIDE HONEK? NIRE BRONTZEKO LARRUA URTZEN ARI DA ETA AURKI EZ NAIZ NI NEU BETERIK IZANGO BURUTIK ESITEN ARI OTE NAIZ? LEHEN, HEMENDIK KANPO NENGOENEA, DENBORA IGAROTZEN ZEN NI BAITATIK ZEHAR. ORAIN BERRIZ, NERONI OTE NAIZ DENBORAN ZEHAR DABILENA?

NONDIK NATOR? NORANTZ ABIATUA NAIZ? ZEREN AMAIERATIK BALDIN BANATOR, ORDUAN HASIERARA ITZULTZEN ARI NAIZ. NIRE JATORRIRA ETA HORRAKO HONDO HORRETAN AGERI DEN ARGITASUNEZKO BIRIBIL HORI? ETA NIRE BIHOTZAZ NAGUSITZEN ARI DEN BAPATEKO ZORIONTASUN HAU? JAINKOZKO BETEGINTZARREA OTE DA? BETIKOTASUNA AGIAN? ZORIONA NI BAITAN LEGE BIHURTU DA, ETA UBIL BERRI HONETARA HURBILTZEN NAIZEN HEINEAN, DENBORAN URTUZ NOA.



NIRE XIX. MENDEA URRUNTASUNEAN AGERI DEN ZULO HUTS ETA ILUN BAT BAIZIK EZ OTE DA GERO? "NIRE MENDEA" ESAN DUT BAINA? NOR NAIZ NI ORDEA? ZEIN DA NIRE GOGOA?

BERANDU DA NIRE PAPERAK BILTZEKO. BAIN NIRE GOGOA AURKITUKO OTE DUT HUTSARTE HONETAN? HUSTASUN HUTS HONETAN? HUTSEAN? NIRE GOGOA.... GUREA.... GU.... GU.... GO.... GO.... GU...

IRVSTA
poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ



kafetegia
taberna

ALDAPA

SAN VICENTE
aldapa

GASTEIZ



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua • Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran •





HUTS

GIDOIA: KOLDO HERNANDEZ
MARRAZKIA: JABIER HDEZ. LANDAZABAL



7



APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

kide

mostrongotxoak

Ikastola, zelan aldatuko zenuke?

a

urreko mende bateko gizakiren bat harapatu eta gaur egunera ekarri gero, ordutik hona aldaketa gutxien izan duen arloa erraz asko azalduko liguke hark: eskolena, alegia. Urteak pasa ahala, eskolek eta ikastolek berdintsu jarraitu dute. Horniduran, adibidez, zera aurkituko dugu: arbela, klarionak, eta ikasleentzako mahaiak eta aulkiak. Sistemaren aldetik ere aldaketa gutxi gertatu dira: irakasle baten bakarkako monologoa, eta ikasleek azkar baino azkarrago den-dena

apuntatzen. Gero azterketa etorri ohi da eta horrela etengabe... Hezkuntzari buruz hausnarketan gabiltzala Beato Tomas de Zumarraga kalean, ikastola ttipi baina eder batekin egin dugu topo, Banbi Alde Zaharra ikastolarekin, hain zuzen. Hemen gaudela aprobetxatuz, barrualdera sartu gara, mostrongotxo alai hauekin solasalditxo bat edukitzeko. Eta ikastola honetako banbino-mostrongoek ederki azaldu digute nolakoa izango litzatekeen euren ametsetako ikastola.



IKASGELAN beti "Los pitufos makineros" entzutea, txikiekin eta pikak edatea gustatuko litzaidake. Txizagura izanez gero txiza egitera joango nintzateke, bideoa irakaslerik gabe ikusko genuke eta goiz eta arratsalde bi jolastordu egongo lirakeke.

Nadel, 9 urte

NIRE AMETSETAKO ikastolan, ikasgelak disk-

jokey-z beteta egongo lirakeke. Irakasleak oso martxosoak izango ziratekenez, dantza eta festak etengabe egingo genituzke.

Bienam, 11 urte

MATEMATIKA,

Euskera eta azterketak kendu eta egunero bi ordu klase eta jolastordu bat izango genuke. Ez litzateke irakaslerik egongo, den-dena guk egingo genuke.

Nicolai, 11 urte

IKASTOLA kenduko nuke, ezer ez egiteko, ezta azterketa bat ere.

Ametsetako ikastolan etsaminak kendu ezezik, neska politen bideo asko ikusi eta bi jolasgarai ere izango genituzke.

Julen F., 10 urte

KOMENIGARRIA

litzateke azterketetan liburu-begiratzea posiblea izatea. Gainera, ikasgaiak

ordenagailuz azaltzea primeran egongo litzateke. Hori bai, irakaslearen lekuan "robot"-a egongo litzateke.

Nordin, 11 urte

IKASTOLA ONA

izateko, jolastokian ordu bat egon ezezik, notetan beti "10"-ek ere agertu beharko lukete. Txango asko izateak ere ikastola jasangarria izaten lagunduko luke.

Asier, 10 urte

arcaya

Portal de Villarreal, 22-24

Tfnoa: 26 06 58

Portal del Rey, 21

Tlfoa: 28 08 69

SOINUA
IRUDIA

ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIK



Portal
del Rey 9

GASTEIZ



ETORKIZUNeko ikastoletan ez da irakaslerik egongo, ezta azterketarik ere. Etxeko lanak ere kendu behar dira.

Aitor, 10 urte

NIK IGERILEKU haundi bat jarriko nuke, irratia etengabe entzun eta txangoak izango lirateke.

Julen, 9 urte

IKASTOLA BERRIAN futbol zelai haundia eta txikia egongo lirateke.

Oscar, 11 urte

NIRI IKASTOLA asko gustatzen zait, baina oporrak bi hilabetekoak izan beharrean hiruzpalau iraun beharko lukete. Komikiak jarri, jolastu eta gauza dibertigarri asko egingo nituzke. Baina garbi utzi behar dut ni oso ondo konpontzen naizela ikastolan.



Afrika, 10 urte

HAINBESTE liburu eta ariketa zail kenduko nituzke. Nire iritziz, ikastola osoan bi irakasle egotearekin nahikoa izango litzateke. Bestalde, ingelesa kendu eta bere ordeaz alemaniera ikasgai gisa jarriko nuke.

Themis, 9 urte

LARUNBAT eta igandeetan ikastolara joango ginateke eta beste egunetan ez. Beharrezkoa da ere jolasgaraia egunero bi ordutara luzatzea. Azterketak eta klase txarrak ere kenduko nituzke.

Genisey, 10 urte

AMETSETAKO ikastola soilik umeez osatutakoa litzateke, irakaslerik gabekoa. Azterketak errezak izango lirateke, liburura begiratzekoak. Klaseetan bideo-kontsolekin jolastu eta musika entzungo genuke.

Itziar, 11 urte

IKASGAI GUZTIAK, soinketa ezik, kenduko nituzke ikastola akatsgabekoa izateko. Koltxonetetan etzan eta bideo-jokuekin jolastuko genuke. Azterketak bideo-kontsola txapelketak izango lirateke.

Paula, 11 urte

MATEMATIKAK eta azterketak kendu eta egunean bi jolastordu aginduko nituzke.

Gorka, 11 urte

Lorea Zurimendi

kan roak geu GAUEZ

GOIZEZ

Nekane 26 91 53
Eduardo 14 21 99
Leire 27 32 81
Lorena 27 10 13
Ainara 23 38 28
Naiara 24 04 42
Ana 26 65 95

Esther 27 84 57
Idoia 24 47 79
Lorena 27 10 13
Montse 26 78 12
Ainara 23 38 28
Txaro 28 08 85
Maidar 24 90 62
Arrate 25 64 01 (ostegun eta ostiralean)



Oihana 25 30 35
Aintzane 27 09 64
Iratxe 24 51 81
Lorena 27 10 13
Patrizia 27 78 19
Iratxe 24 51 81
Ainara 23 38 28
Leire 23 12 23
Maidar 24 90 62

ASTEBURU AN

Olatz 25 61 20
Montse 26 78 12
Arrate 25 64 01
Elena 14 37 28
Leire 23 12 23
Jose Angel 27 62 41
Saida 26 58 05
Idoia 24 47 79
Maidar 24 90 62
Belen 13 65 10
Monica 13 86 40
Itziar 13 86 21
Maria Jesus 13 54 35

Umeak zaintzen ditugu

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR



Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

ZURE INPRIMATEGIA
EUSKARAZ

Kolorezko Fotokopiak
ere egiten ditugu

GASTEIZ

INPRIMATEGIA

Anahi Arbaizar



Ismael Dz. de Mendibil

ez dago atzera jotzerik. Udak agur egin behar izan digu. Hala ere, gu eguzkitan gaude oraindik... eta horren lekuko ale honetako kirol freskoa dugu: ur-eskia, alegia. Gezurra badirudi ere, ur-eskiak puntako kirolariak eman ditu Araban, eta nola ez, tartetxo bat egin diogu orrialdeotan. Asmo horrekin, Anahi Arbaizarrek lagundurik, Zadorrako urtegiatarantz abiatu gara.

Anahi Arbaizarrek ederto ezagutzen ditu Ulibarriko urtegiko txoko guztiak. Gasteiztar hau txikitatik ibili da hantxe. Beti eskien gainean, baina antzemango zenutenez ez elurretan uretan baizik.

“Anaia nagusiagoak dauzkate eta eurek eskiatzen zutenek neu ere horretan hasi nintzen bederatzi urte nituela”, argitu digu Anahik. Alabaina, eta Araban urtegi ederra badaukagu ere, ur-eskiaren sehaska Katalunian da. Geure protagonistak bertara alde egin behar izan zuen orduan:

bestea Gironan”. Egia esan, egunak, hilabeteak, eta urteak igaro dira ordutik. Egun Anahik 27 urte dauzka.

Gauzak horrela, kirolaria lan eta lan ibili da azken urteotan. Gasteiztik Gironara, eta bertan noski, entrenamendu gogorren ostean, hotelera; horixe da Anahiren eguneroko bizimodua. Baina, berak esan digunez, lanak saria ekartzen du berekin. “Jauzietan Estatuko marka guztiak neureganatu ditut, maila orotan gainera”. Ikus dezakegunez, ahalegina ez da alferrik

izan, eta bestalde, hori gutxi balitz, egun ere Estatuko marka gasteiztar honen esku dago. “Frantzian lortu nuen orain bi urte, aurtan hori hobetzea dut helburu”.

Europako Txapelduna

Ur-eski txapelketetan proba ezberdinak ditugu, hau da, saltoak, figurak eta slaloma. Anahi guztietan ederto aritzen bada ere, jauziak ditu atsegin. Gainera, jauziena probarik ikusgarriena da, saltoak 30 metrokoak izaten baitira. Egia esan, gasteiztar honen 40 metroko marka ikusirik ez dakigu ziur salto ala, txori baten eran, hegan egiten duen; baina hegan egitean zer sentitzen duen galdetu diogu: “Izugarri gustatzen zait, halere, ez daukat hitzik hori azaltzeko. Jauzia ona baldin bada, pozez itzultzen naiz etxera.

euskaldun izan nahi dugulako

**EUSKAL HERRIA
EUSKALTEGI
BIHURTU DUGU!**



izena eman  n!

Zurekin 600.000
irakasle izango gara
2.300.000 ikasle
euskalduntzeko

	Jose	
Peru 8	Mardones 8	Arana 30
22 60 50	26 35 40	25 24 00

jo eta ke
**TXAPELARRI
TABERNA**

KUTXI
kalean

"SALTOETAN ESTATUKO MARKA GUZTIAK NEUREGANATU DITUT"

hegan egiten duen eskialaria

Txarra bada, ordea, ez dut inorekin hitz egin nahi. Azkenik, neure buruari esan behar izaten diot: "Geldi Anahi! hau gustuko duzulako egiten duzu eta".

Hala eta guztiz ere, bada gehiagorik, ur-eski arabarrak European ere txapel bat baino gehiago irabazi baitu. Hile honetako kirol izarra 1984an Europako haur txapelduna izan zen, eta sei urte beranduago, 21 urtetik beherako txapela ere jantzi zuen. Txapela buruan eta ibili munduan dio esakerak, eta Anahik hitzez hitz bete du esamoldea: "Frantzia Europako txapelketarik garrantzitsuenak antolatzen dituzte. Egia esan, Gasteizen ez naiz inoiz egoten, sei hilabete Katalunian ematen baititut, eta gainerakoak Estatu Batuetan". Kirolari honek dioenez, azken hiru urteotan Estatu Batuetara ere joan da, bertan eskiatu eta ikasten duelako. "Hantxe munduko ur-eskiari onenak

biltzen dira eta".

Sosik ez

Dena den, kirolarien bizitzak gorabehera asko izaten ditu, aldi onak eta txarrak izaten dira, denetatik pixka bat. Azken horien artean, lesioak ditugu ezbeharririk handienak, ezbairik gabe. Anahik ere ederto ezagutzen ditu aldi txar horiek, "klabikula hautsi, eta urtebete egon behar izan nuen geldirik. Horrek nire egitasmo guztiak bertan behera utzi zituen". Halere, eta lesioak tartean izan arren, gazte arabar honek Europako eskialari onenen artean ikusten du bere burua, "aurreneko postuetan egoteko gai naiz, beti lehenengo bosten artean", gaineratu digu.

Dakizuenek, kirol aberatsak eta txiroak ditugu. Horra hor bestela, futboleko fitxaketak eta futbol talde handien

aurrekontuak. Horren ildotik, adibide bat besterik ez: Barcelona futbol taldearen aurtengo aurrekontua 8.000 milioikoa da. Esan beharrik ez dago, ur-eskian ez dela horrelakorik gertatzen, Anahi eskialariak baieztatu digunez. "Kirol honek ez du sosik ematen; nire diru-iturriak, sariak, dirulaguntzak eta gurasoak dira. Horrez gainera, eskialari asko familia dirudunetatik datoz". Alabaina, gasteiztar hau gaztea da oraindik, "unerik goxoen 30 urte betetzean helden da" eta, beraz, etorkizunean ere berri onik emango digu Anahik.

Laburbilduz, uda honetan eguzkia gutxitan ikusi badugu ere, kirol freskoa ekarri nahi izan dugu orrialdeotara. Bestetik, ur-eskiak zeresanik emango du datozen urteotan. Anahi Arbaizaren atzetik beste gazte batzuk baitatoz. Agur udari, datorren urtera arte, behintzat.

Ismael Diaz de Mendibil

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3
Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**



Ez da bakarrik eskoletako gauza. Irailak ere zuzeneta-ko kurtsoari hasiera ematen dio. Kontzertu ugari gure hirian ikus eta entzungai izango ditugunak. Orain, motorra berotu baino lehen, birpasa dezagun nota onarekin gainditua izan zen aurreneko denboraldia.

Kurtso berriari ekin aurretik...



... ikus dezagun zer gertatu zen pasatutakoan, Gasteizen gauzatu ziren hirurogei zuzeneko agerraldietan. Guztientzako lekurik ez dagoenez, oroimenean oraindik fresko ditugun batzuk aukeratu ditugu.

BURNING.

Betiko rock 'n roll-a Burning taldeko eskutik ailegatu zitzaigun Gasteizeraino azaroaren azken egunetan. Madrilekoak ez daude bere sasoi onenean, baina oraindik gai ditugu urteetan zehar sortu dituzten abesti onez beteriko kontzertu aipagarriren bat gauzatzeko. Gasteizkoa ez genuen apartakoa izan, hala ere ez ziren falta izan denok espero genituen kantak, ezta ere Chuck Berry ala Keith Richards-en erarako kitarra riff-ak.

Eta geuk galdetzen genion gure buruari: Zertan dabilta Madrilgo hauek mende bukaeran, hau bezalako leku batean? Bizitzari eutsi nahian. Eta ez da gutxi.

THERAPY.

Kontzertu honetan ikusi eta entzun genuena azaldu ahal izateko hitz bat baino ez dugu topatu: borobila. IHESaren kontrako borrokak merezi eta lortu egin zuen. Rock osasuntsua gaixotasunaren aurrean.

DEICIDE.

Abenduaren hasieran Gasteiz ile luzez eta jantzi beltzez bete zitzaigun, Deicide, Death Metal talde ordezkariarik garrantzitsuenetariko bat jasotzeko. Elektrizitatea, distorsioz asetutako kitararak eta ahots guturalak. Aretoa topera, entzulegoa pozik eta... nekatuta? Ez da gehiegi izango bi telonero egotea, gehien bat kontzertu-leku

txiki batean geundela eta "talde izarra" oso nabarmena zela kontutan hartuz?

VARGAS BLUES BAND.

Urtea joan eta blues-a etorri. Blues-a Vargas-en arabera ez da purismozaleek behin eta berriro defendatuko dutena. Berarenak Memphis-eko soinu zaharretan oinarriturik egonarren, ez du gaitzesten rock 'n roll-ak, rithm and blues-ak, erritmo latindarrekin edota Mexiko eta EEBB arteko musika mugatarak eskaintzen diotena. Badakizu, kitarrajole dotorea, kalitatea, eta abesti onak osagai ditugunean, emaitza ezin da batere txarra izan, kontrakoa baizik.

GARI.

Gabonetan eta etxean jokatzuk. Egun haieran Hertzainak-eko abeslari ohiak atera berria zeukan bakarkako bere estraineko diska. Zabala taldea desagertu zenetik horrenbeste aldiz ahoz aho ibili izan zena, azkenik, egia bihurtu zen. Aurrean genuen Gari bere betiko lagunak gabe. Diskoak jasotako kritikak ezin hobeak, musikari trebeak, eta gainera Hertzainak garaietako abestiren bat Garik idatzitakoak, hain zuzen ere. Baina indarra eta arima non zuden? Hasierako kontzertu bat izatea ote erruduna? Kilometro gutxi aldi hartan?

LOS ESPECIALISTAS.

Hauek bai izan genituela Olentzeroren opari ederrak! Zaragozatik hurbildu zitzaizkigun euren diskariak freskoena, Mundo mundial izenekoa, zuzenean aurkezteko asmoz. Hala eta guztiz ere, entzulegoaren erantzuna ez zen agerraldia bezain arrakastatsua izan. Oso jende gutxi

MATRIKULA ZAITEZ !



HEGOALDE
euskaltegia.

Jose Lejarreta, 9, behea

tfnoa 28 41 96 01003 GASTEIZ



Arte Ederrei buruzko Sailik
zabalena ezazu ezazu
behar duzun guztia aurkituko duzu

pastelak

pintzelak

lientzoak

%10a

gutxiago

Arriaga

oleoak

ikatzkiloak

olioak

etabar

Arriaga

euskalgintza, s.l.

akuarela

kaballetreak

etabar

Arriaga

euskalgintza, s.l.

Arriaga

500 METRO KARRATU
PAPERGINTZA, INFORMATIKA
ETA OFIMATIKARI ESKEINIAK

San Anton Plaza 7-8 / Telf.: 26 90 33 - Faxa: 26 22 12
Billegia: Urtiasolo 2 2. Pabilioia 23 47 00 Fax: 23 49 14

nota onarekin urtea agurtzen zuen kontzertua dastatzeko. Non zeudeten? Erosketak egiten? Ez al zenekiten estatuko erritmo beroenak Ebro ondoan bizi direla?

DEE DEE RAMONE.

Ramones talde mitikoaren sortzailea hotzarekin batera sartu zen gure hirira, eta horrelakoxea gertatu zen kontzertua: hotza. Dee Dee ez dugu aparteko kitarrajolea, ezta abeslari ona ere. Bere indarra Ramones laukotearekin sortutako abestietan zegoen eta, gaur egun, ez dago eurekin; ezta haiek gurekin ere. Era txarrean entzun ahal izan genituen New York-tarren ondoan egin zituen kanta ospetsuak.

DOCTOR DESEO.

Urte asko pasa dira bilbotar hauek aurreneko diska kaleratu zutenetik. Beren berri-rik, ordea, bagenuen. Bagenekien alde erritmikoari zegokionez aldeketaren bat zegoela. Ezagutzen genituen bateria eta baxujole berrien izenak: Txanpi eta Kike, Hertzainak ohiak alegia, baina zalantzan genbiltzan: eutsiko ote zion taldeak hasierako indarrari? Erantzun zuzena jaso genuen: BAI.

GWAR.

"Zine Gore"-zaleek bazeukaten kontzertu batera joateko aitzakia ezin hobea: GWAR amerikarrek bisitatu gintuzten otsailaren erdian. Musikak ez zuen garrantzi handirik izan, bai eskenatokian ikusi genuenak. Zakil eskergak, emakume haurdunak erditzen, odola eta erraiak.

M-CLAN.

Hau bai izan genuela kontzertu bikaina, kurtsoko onena agian. Asteguna izatea eta egun haietan gure buru gainean erori zen elurte izugarria ez ziren oztopo izan Murtziako taldearentzat. Euren rock 'n roll-a baino ez zen, baina gustatu zitzaigun, eta nola gainera!

"Un Buen Momento", bere lehenengo diskaren abesti guztiak entzun genituen, eta bukatzeko bertsioen bat. Ez dugu inoiz ahaztuko Faces-en "Stay with me" kantaren birmoldaketa, Rod Stewarteta Ron Wood gorrituko lituzkeena.

ALBERT PLA.

Inoiz ikusi ez duguna: kontzertuari ekin eta entzulegoa ixildu. Baina, zer zen hura? Antzekia? Mitin bat? Ez. Albert Plá besterik ez zen. Itxuraz jendea ez zitzaion axola musika, Kataluniarraren abestietako hitzek esaten zigutena baizik. Aretoa betarik eta denok eserita, dibertigarria. Dantzan ibili edo abestu? A, bai! Lou Reed-en "Walk on the Wild Side" klasikoa iritsi zenean. Bizitzaren alderik basatiena? Albert Plá-rena, jakina.

RANCID.

Irukin laburra, kontzertuaren antzera. The

Clash handien "semeek" badakite ongi josten, baina zoritxarrez oraindik ez dute ikasi zer den benetazko kontzertu bat.

ROSENDO.

Ekainaren 14ean. Dendoraldiari agur esan zion kontzertua. Ona, benetan ona. Baina, jendea non zegoen? Galdetu iaz Rosendok erabat aspertu zituen guztiak eta laster konturatuko zara zergatik aurtengo honetan Madrildarrarekin ez duten ezer jakin nahi izan. Rock 'n roll-a eta kitarra nagusi, betiko jarratzaileak etxean eta "Leño, Leño!" oihuak denon ezarrietan.

Txabi Arnal Gil



LAU HAIZEETARA

- 2, 3 eta 5 ordutako ikastaroak.
- Urrats guztiak; EGA, Mintza eta Sakontze
- BENETAN: Euskara ordenagailuz

Matrikula Epea Irailak 2-20

Pintoreria, 74 Telf.: 28 97 80 Zaldiaran Plaza, 16 Telf.: 24 49 05
Errege Katolikoak, 15 - C Behea Telf.: 28 89 22 / 44 Gasteiz



BAR KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO. 143883
GASTEIZ

HILAREN 22AN ESKOLUNBEKO ERMITAN ETA 'GUREA DELAKO' LELOPEAN OSPATUKO DA

Añanako euskararen eguna

añana, Euskal Herri osoan euskalduntze mailarik baxuena duen eskualdea dugu eta ikastolarik ez duen bakarra, gainera. Egoera hau dela eta, Añanako koadrila osatzen duten Gaubea, Koartango, Langraiz, Gesaltza eta beste Udalerrietako hainbat lagunek, Miranda de Ebroko beste batzurekin batera, "Euskara Añanan Mingainean" taldea sortu zuen euskara eskualdean sustatzeko asmoarekin. Talde honen lehendabiziko ekimena irailaren 22an gauzatuko da Eskolunbeko ermitan.

BESTE HERRIALDE eta eskualdeen euskararen aldeko ospakizunen hiladan tartetxo bat aurkitu eta gero, Añanako koadrilak bere euskararen eguna izango du aurten lehendabiziko aldiz, hemendik aurrera urtero errepikatzen saiatuko direna.

Irailak 22an Eskolunbeko ermitaren inguruko zelaia prest egongo dira goizeko hamarretatik aurrera bertara hurbiltzen diren guztioi harrera emateko.

'Kuartango 96'ko eguna txalapartaren



doinuen deiarekin hasiko da. Eguerdiko hamabietan meza santua egongo da eta jarraian herri kirol eta euskal dantzen unea izango da. Bazkalareko tarte honetan, eskualdean bertan euskararen alde egindako lanagatik nabarmendu den pertsona bati omenaldi bero bat eskainiko zaio (antolatzaileek isilean gorde nahi dute aurtengo pertsonaiaren izena goratzarrea egiteko unea iritsi arte).

Bazkalostean bertsolarientzako txanda izango da. Abel Enbeitak jarriko dituen gaiei eutsiz Zigor Enbeita, Oihane Perea, Aitziber Perez de Karkamo eta Asier Iriondo arituko dira. Arratsaldean zehar, euskal musika erakusketa, haur jolasak, artisau feria, antzerkia eta bolo txapelketa izango dira.

Azkenik, eguna amaitzeko, hiru kontzertuk jarriko dute giroa: lehenik eta behin 'Trikitrixa Kontrairo Big Band Probisionala' arituko da; ondoren 'Gozategi Anaiak' eta azken txanpa 'Zigor' heavy taldearen eskuetan geldituko da.



Euskaltegiak indartu

Esan bezala, 'Euskara Añanan Mingainean' taldeak euskara Añanako koadrilan sustatzea du helburu. "Asmoa eskualdea euskalduntzea da. Zentzu honetan komunikabideak eta erakunde publikoak salatzen ditugu beti ere gutaz ahaztu direlako. Euskal Herriko eskualderik erdaldunena bai, baina baita ahaztuena ere bagara".

'Kuartango 96'ko eguna ospatzearekin bertako euskaltegirako dirua jaso nahi da honen egoera hobetzeko eta, aldi berean, matrikulak merkeagotzeko. Era honetan, helduak euskaldundu ahal izango dira, "hauxe baita bertako arazorik larrienetako bat: haurrak euskal ereduaren ikasten ari dira baina ikastetxetik irten eta gero ezinezkoa zaie euskara erabiltzea eta, beraz, galdu egingo dute".

Edu Lz. de Luzuriaga



Iezio berri bat ostrukari buruz

Bernardo
Atxaga



«*S*equitur natura avium» –idazten du Pliniok bere *Naturalis Historia*-n–«*quarum gran dissimi et paene bestiarum generis struthocameli Africi vel Aethiopici altitudinem equitis insidentis equo excedunt, celeritatem vincunt, ad hoc demum datis pinnis, ut currentem adiuvent. Cetero non sunt volucres nec a terra tolluntur*» –jarraitzen du Pliniok bere *Naturalis Historia*-n–. «*Un gulae eis cervinis similes, quibus dimicant, bisulcae et comprehendendis lapidibus utiles, quos in fuga contra sequentes ingerunt pedibus. Concoquendi sine dilectu devorata mira natura*» –bukatzen du Pliniok bere *Naturalis Historia*-n–«*sed non minus stoliditas in tanta reliqui corporis altitudine, cum colla frutice occultaverint, latere sese existimantium*».

Plinio duela hoge mende hil zen, Vesubio sumendi lehertuaren labarekin erreta gainera, zeren arrisku horretan jartzera bultzatu baitzuen bere jakin-minak; baina guztiarekin, beragandik gudanaino denbora asko pasa bada ere, oraindik ere zutik diraute, funtsean, berak ostrukari buruz egindako baieztapenek: ostruka hegazti bat dela, alegia, denik eta hegaztirik haundiena, zaldian eseritako zaldun baten goiera aise lortzen duena; eta hortaz gainera, oreinaren oin eta azkazalak dituela, atzetik segika duen etsaiari harriak botatzeko baliatzen zaizkionak; eta hortaz gainera, harritzekoa eta benetan miresgarria dela bere irensteko gaitasuna, edozein gauza irensten duela, izan harri, paper, belar edo burni; eta hegazti erabat ergela dela, duen ergeltasuna bere gorputzaren tamainakoa dela gutxienez, hots, bere zaldian eseritako zaldun baten goiera aise lortzen duena; eta ez dela hegan egiteko gauza; eta arraultzak jarri eta lurpean gordetzen dituela...

Ohar gaitezen orain arraultzak lurpean gordetzeko bere ohitura horretaz, zeren bitxia baita –jakintsu askok azpimarratu dutenez– bai ohitura bera eta bai ohitura horren inguruko guztia. Begira, kasu, zer dioten orain dela mende asko idatzitako *Bestiari Catalá* delakoak:

«... e com fa sos ous, si ls pon en la arena, e garda vers lo çel e té sment a una stela qui s' apella Virgo, qui appar de març e d' abril, e com ell ha vista aquella stela, sí lexa star los ous e no y torna fins que los sturç són nats; e por lo poder de Déu lo sol scalfa aquells ous tant fins que los sturç són nats.»

Ez du noski gezurra izan behar *Bestiari Catalá* zaharrak dioena, zeren eta –xehetasun bat gora edo behera– gauza berdina adierazten baitigute beste hainbat bestiariok, hala Richard de Fournival-enak nola Pierre de Beauvais-enak. Begira, horren frogaz bezala, Fournivalek idatzitako poema hau:

«Así le sucede al huevo del Avestruz. Porque este pájaro es de tal naturaleza que deja su huevo en la arena y ya no vuelve a prestarle atención. Pero el sol, que es fuente universal de calor, le calienta y le alimenta en la arena. Así llega a la vida, sin que precise ser empollado de otra manera. Así digo de mí, que soy el huevo que nadie ha empollado, y ha faltado muy poco para que me echase a perder. Pero una cierta alegría me sostiene y es como mi sol. Este es un consuelo común a todos los hombres, y cada uno tiene la parte que Dios le ha dado.»

Eta frogaz hori nahikoa ez balitz, alegia norbaitek dudak balitu ostrukaren arraultza jartzeko moduz, hona hemen bigarren bat, arestian aipatutako Pierre de Beauvais-i zor zaiona:

«...L' animal nommé, autruche, quand vient le temps où il doit pondre ses oeufs, lève les yeux vers le ciel et regarde si l'étoile qui est appelée Virgile est dans le ciel, car l'autruche ne pond ses oeufs que lorsque cette étoile est visible, c'est à dire lorsque les blés forment leurs épis et que l'on entre en été, vers le mois de Juin. Alors, quand cette bête nommée autruche aperçoit l'étoile, elle creuse un trou dans le sol et y dépose ses oeufs, qu'elle recouvre de sable. Quand elle quitte le lieu où elle a pondu, elle n' y retourne jamais plus et oublie ses oeufs aussitôt, car elle est d'une nature oublieuse.»

Beraz, orain artekoa laburtuz eta ostruka-arraultzei buruzko pundurik garrantzitsuenak bereiziz, honako hau esango genuke:

SEI.-Eguzkiak hondarra edo lurra berotu, eta txitatu egiten dituela arraultzak lan hori ostrukari kenduz.

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Oi ostruka ar, korrika eta oinez ibiltzen zarena,
Emaidazu zure isatsaren lumetako bat!

Ostruka ar, burua altxatzen duzuna,
khari-khari esaten du zure sabelak;
Ostruka, tripak ezik dena daukak jatekoa!
Emaidak hire lumen hezurretako bat, ostruka!

Hura, hui-hui esaten duten bi hezur dituen,
ostruka ar, muin gozo gozoa duena,
aurpegiarekin gou-gou esaten duena...
Ene mende hartuko al haut, ostruka!

Ehiztariek desiratu egiten dute, ehiztariek kantatu egiten diote, mesedez ere eskatzen diote, baina aurpegiarekin gou-gou esaten duen gure txori horrek ihesari ematen dio orduko 60 kilometro eginez. Gero, nahikoa tarte lortzen duenean, makurtu eta lurreratu egiten du bere gorputz haundia, haundiegia gauza onerako, eta segidan zulo bat aurkitu eta burua sartzen du bertan. Hartara, ez da nabarmentzen; hartara, Oteizak behin idatzi zuen bezala, soluzio bat bilatzen du heriotzaz kanpora. Zeren, jakina, ostruka ez baita Rambo bat, ez baita zezena bezalakoa:

«Zezena animalia baldarra da, primarioa» –idatzi zuen Oteizak bere *Quosque Tandem* hartan–. «Zezenak ez dauka ikara esistentziala onartze-ko gaitasun izpiritualik: heriotza denik ere jakin gabe hiltzen da. Nork esan du ostruka makala dela, zergatik eta arrisku gorenaren aurrean burua izkutatzen duelako! Ostrukak ikara dauka, eta soluzioa aurkitzen du –soluzio berezia, izpirituala– heriotzaz kanpora. Animalia zoragarria-irandua-ostruka! Animalia metafisikoa, bere kromlech propiala sortzen dakiena! Hegoak izan arren, ezin du hegan egin, gizonak bezala...»

Nork esan du ostruka makala dela? Erantzuna da: askok esan dute. Eta ez bakarrik burua izkutatzen duelako eta hartara asko bereizten delako Rambo eta gainerako gure eredu mirestuengandik; baita bere itxuragatik ere. Izan ere, ostruka itsusia da, oso itsusia. Izterrak hain agerian edukiko ez balitu, agian besterik litzateke. Baina halere... Izterrak sedaz bilduak edukita ere, zer egin bere ia ilerik gabeko buru horrekin? Kontutan izan dezagun Seneka-ren lekukotasuna:

«Senatuan negarrez ikusi genuen Fidio Cornelio» –kontatzen du Senekak–. «Antza denez, Corbulionek ostrukarena bezalakoa buru kalbosoa zeukala esan zion...»

Oraingo senatoreek ez dute noski negarrik egiten holako huskeriengatik, eta kosta egingo zaizue agian Senekaren hitzei neurria hartzea, baina argi dagoena zera da, ostruka oso urrun dagoela Claudia Schiffer baten itxura eta neurrietatik. Zeren, hori da bestea: ze neurriak dituen ostrukak: hogeita hamar –buruan hogeita hamar–, ehunda laurogei –gerrian–, eta ehunda hirurogei –ipurdi aldean–. Bistakoa da, noski: bere burua ttikiegia da bere gorputzaren aldean; bere gorputza eta bere burua ez datoz bat. Eta horri buruzko dudak baleude, hortxe dago etimologiaren irakaspena... izan ere, ostruka hitza okzitanoaren *ostrutz* hitzetik dator, eta hau berriz latinezko *struthio*-tik, eta *struthio* hau bera greziarren *struthiokamelos* delakotik. Eta zer da *kamelos*? Bada ganbelua, Camel tabako paketeetan azaltzen den animalia. Eta *struthio*? Bada txoririk ugariena, Euskal *Herrian ormatxori*, *paret-txori*, *eliz-txori* bezala ezagutzen dena, eta Lizardik *txolarre* deitzen zuena. Eta, Lizardi zein txolarrea aipatu ditugunez gero, zergatik ez zabaldu parentesi bat eta lehenengoak bigarrenari buruz idatzi zuen poema irakurri? Bada segituan irakurriko dizuet, zeren eta nire ustez gaur idazle garenok lehen idazle izan zirenen *portadore* izan behar baitugu. Goazen beraz poema irakurtzera. Izena du *Paris'ko txolarrea*.

Paris'ko txolarrea

Txolarretxo, txolarre,
Paris-erdikoa:
Bourse 'ko iskanbila
(gizon zoro batzarre)
ez ote naikoa
i izutzeko, axolakabe biribila?

Farol itzali baten
txapel-gailurrera
etorri aiz txuxen
apur ostu bat yaten:
batetik bestera,
txapelaren muturrak arin dituk gaintzen.

Salto banakin, begi
ernaia lurrera:
ez aiz i makala:
begiraldi luzeegi
gabe. baator beera:
ez. alearen ordez, yasotzera azala

Kafetxean bainago
astiaren yabe,
zer egin oberik,
(ezer ez gogarago)
muñak urtu gabe
zerbait, alarik ere, gogo-yolas baizik?

Leioak lauso dira,
eguraldiaren
antzo.Barrenean,
giroaren arira,
loxustak egiten
morroi mantal-zuriak daude bazterrean.

Begira, beetik gora,
berriz txolarrea.
Keñuka begiak,
irentsi du, gerora
luzatzeka, alea
Esku-(?)–peko guri bat boteaz... an'tziak!

Paris'ko txolarrea:
zertan aiz berezi nere erriko batez?
Azalez. soin-arrea;
barrenez, biurri;
kideago zaitezten..., eztakik prantzesez!

Kanpantorre xaarrear
bata bezin lasai,
bestea da maiztar
Tuileri goitarrean
Egingo nuke, bai,
angoa lotsa ezez onuntza ba'nekar.

Nun-naitar izan-miñez,
ostera, gizona
bai txori baldarra!
Alegiñak egiñez
bebil andik ona:
etxez kanpora beti duk baserritarra.

I,abur: nere burua
Paris'en ikusiz
ain lotu ta arlote,
otoi nizun zerua,
zeatz adiraziz
gizon baño naiago nukela txolarre.

Txolarre, bai. Baina, ostruka? Ez, ostruka ez. Inork ez du ostruka izan nahi. Esango du Oteizak nahi duena, baina –dela bere kobardeziagatik, dela bere itsusitasunagatik– kontua da ostruka oso beheira erorita dagoela gaur egun. Ez da azaltzen pelikuletan Rambo eta Rambotxu guztiak bezala; ez da azaltzen errebistetan, Claudia Schiffer eta bere lagunak bezala; eta hori gutxi balitz, ez da fabula bakar batean ere azaltzen: azeria, otsoa, zakurra, katua, xagua, lehoia, tigre, arranoa, sugea, untzia, usoa, tortoka, trikua... horiek denak eta beste mila azaltzen dira, baina bera ez. Azal zitekeen animalien munduko Cyrano bat bezala-edo, baina ohore hori ere kendu egin zioten: zehatzago esatearren, ahate batek kendu zion, *Ahate itsusiak* hain zuzen ere. Orain ahateari egiten dizkiote monumentoak, huri askotako parkeetan ikus daitezke brontzezko edo harrizko ahateak azpian honako leienda hau dutela: *itsusiena suertatu zen ederrena*. Irain bat ostrukarentzat. Ahate beltza zela eta azkenean zisnea izan. Tranpa zikin bat, besterik ez. Zer esango luke Euskalerriko buruhaundienak eta itsusienak Kortezubira joan –Marko izeneko alkateak antolatutako txapelketa horietako batera, noski– eta norbaitek lehenengo postua kenduko balio, eta norbait hori –maskara eta abarrak kendu eta gero– Claudia Schiffer

suertatuko balitz? Bada holaxe sentitzen dira ostrukak ahate itsusiari buruz. Gainera, ahulak ahulgarria berarekin izaten du, eta zera ere gertatzen da, jendeak ez diola ostrukari bere Rambo-etzasuna eta bere Claudia Schiffer-etzasuna barkatzen, eta txar guztiak eransten dizkiola. Halaxe irakurtzen nuen duela gutxi nere etxe-aurreko txartel batean:

«S.O.S. Angola está en guerra. No escondas la cabeza como el avestruz. Nuestros hermanos no tienen medicinas ni alimentos. Alimentos que no se estropean y las medicinas que tienes arrinconadas las puedes entregar en la Parroquia del Sagrado Corazón. La solidaridad es un nuevo nombre de la justicia.»

Beraz, ez bakarrik itsusia eta kobardea, baita berekoia eta *—Pliniok esaten zuena gogoratzen bazaizue, sed non minus stoliditas in tanta reliqui corporis altitudine—* ... baita zeharo ergela ere. Gauzak hola, ez da harritzekoa ostrukak zoologikoetatik izkutatzea. Gaur egun, zoologikoe-tan ezin da ostrukarik ikusi. Egia da La Habana-koan bat gelditzen dela, Tropikanako dantzarien luma-hornitzailea hain zuzen ere, baina norbait ez badio erremedioren bat aurki tzen, hori da, irlak nozitzen duen hesiketa ekonomiko ez bada apurtzen, bereak ere egin du mundu anker honetan.

Baina, konfuz, errukirik ez. Mesedez, errukirik ez. Ostruka txori basatia da, eta Lawrence-k idatzi zuen bezala:

«Bere burua erruki duen gauza basatirik ez dut egundo ikusi.
Txori ttiki bat hotzak hilda eroriko da adarretik—
bere buruaren errukirik behin ere sentitu gabe.»

Ostrukak ere izkutatzeke zorian zeudela-eta, ostruka ttiki bat erosi nuen orain dela urtebete Londresen. Brontzezkoa da, eta bost zentimetroz altxatzen da lurretik; mahaitik, kasu honetan, zeren nire lan-mahaian edukitzen baitut beti talismantzat. Batzuetan, hartu nire ostrukatxo hori eskuan eta —beste batzuek botilako deabruarekin edo tximu-atzapar batekin egin zuten bezala— desio bat luzatzen diot, eman diezadala poema on bat, edo ideia on bat, edo bestela salba dezala euskara, edo bestela egin nazala Rambo bezalakoa halatan mirestua izateko, edo bestela —beste erremediorik ez badago— bihur nazala Claudia Schifferren pareko hartara fotografia saio bategatik ehun milioi kobratu ahal izateko, zeren, jakina, urtean 200 saio eginez gero, ehun milioi bider 200 saio berdin 20.000 milioi; eta hamar urtetan, 20.000 milioi bider 10 berdin 200.000 milioi, eta 200.000 milioiekin, apustu egingo nuke, baietz euskara salbatu, zeren txapelketa bat egingo baikenuke Euskal Telebis-tan futbol-partidu baten deskantsuan, milioi bat euskara ikasten duten aurreneko 200.000 pertsonentzat; eta seguru borrela euskarak gorakada haundia emango lukeela, eta orduan ni 200.000 milioi horien interesekin biziko nintzateke egin-behar-dena-egin izanak ematen duen sosegua-rekin.

Baina, ay! nire talismanak ez du oraindik holako mirakulurik egin. Oraingo, bizpahiru irudi baizik ez dizkit ekarri; irudimenera, noski, begien atzean dagoen leku horretara. Zer erakusten didaten irudi horiek? Bada poema bat aurrena, eta karretera bat gero.

Poema Chestertonek idatzi zuen duela denbora asko, eta bere gaia Noe zaharraren ardo-zaletasuna da. Honela dio:

«Noe zaharrak ostruka granja bat zeukan untzian,
eta pertzak adinako katilutan eta palarekin
jaten zituen arraultzak gosarian;
eta hartzen zuen zopa elefante-zopa zen;
eta jaten zuen arraina, balea zen;
Ordea dena zen ttiki untzian zeukan bodegaren aldean,
eta hala esaten zion Noek bere andrereari:
Ez nau euriak batere kezkatzen; niri bost axola
... ura ardoarekin nahasten ez den bitartean!!

Kataratak jaisten ziren zerutik lur-ertzak itsutuz,
izarrak ezabatu egingo zirela zirudien;
Infernuaren eztarriak asetu nahian-edo—
zazpi zeruak orruka jausten ziren.
Eta hala esaten zuen Noek begia keinatuz:
«Euri-itxura dugu, eta mendiak ere
hondoratzea dihoazela dirudi,
baina ez nau euriak batere kezkatzen; niri bost axola,
...ura ardoarekin nahasten ez den bitartean!!

Hara hor nire talismanak, nire brontzezko ostruka ttikiak, ekarritako lehen irudia, Chestertonen poema. Eta bigarren irudia? Esan dut karretera bat dela. Eta halaxe da, Gipuzkoako karretera bat, hogeita zazpigarrena, nire jaioterritik pasatzen dena. Eta jarri karretera horretara begira, eta ume bat ikusten dut bertan, bizikleta gorri batean doana pedalei eraginez eta eraginez, eta ume hori neu naiz, neu naiz bederatzi urterekin, eta etxera noa arratsalde osoa Zizurkilgo eskolan pasa eta gero, eta negua da, gaua da, euria ari du, eta pedalei eraginez eta eraginez pasa ditut Sacem fabrikatik datozen langileak, zeren langileak, taldea osatuz, kapote beltzetan bilduta, oso poliki baitihoaz; eta gero bi neska pasatzen ditut, haiek ere oso poliki baitihoaz lepoa dena bufandetan bilduta eta kontuak esanez; eta halako batean gizon bat ikusten dut nire farolaren argira, gizon bakartu bat euripean batere euritakorik gabe oinez, eta banao gizon hori atzean uztera eta hor non berak hotsegiten didan esanez:

—¿Quieres que te lea mi poema?
—¿Eres castellano?—galdetzen diot nik.
—Me llamo Leopoldo Maria Panero. ¿Quieres que te lea el poema?—esaten dit berak berriro.

Buruarekin baietz egiten dudala ikusiz paper busti bat ateratzen du berak poltsikotik, eta segituan, metxero bat piztu eta PETER PUNK ize-neko poema irakurtzen dit haren argira:

Peter Punk es el amor y Campanilla su princesa
en el cielo están buscando el secreto de la nada
todos los niños extraviados.
Peter Punk es el amor y Campanilla su princesa
Garfio busca en vano el secreto de su mano
y Campanilla llora al pie del Arbol Extraviado
adónde las sirenas y adónde los enanos
Peter Punk intenta en vano su amor explicar,
en una playa desierta Campanilla lo dejó.


Poema bukatu eta biok ixilik geratzen gara une hatez, eta gero euritako-rik gabeko gizonak aurrera egiten du bere norabidean oinez eta nik ere aurrera egiten dut nire norabidean bizikletaz, eta berriro ere pasa egiten ditut Sacem-eko langileak, eta baita bi neskak ere, eta pedalei eraginez eta eraginez nire jaioterrira hurbiltzen naiz... Hortxe daude Panaderiko argiak, eta Altxartekoak, eta Ibarrazpikoak, eta Ihartzanekoak, eta sartzen naiz nire herriko kale nagusian eta gelditu gabe joaten naiz kalean gora, Betaniraino hain zuzen ere, okindegiraino, zeren eta Zizurkila eskolara joaten hasi nintzenetik pandeletxe baten saria izaten baitut egu-nero. Jaisten naiz bizikletatik, sartzen naiz Betanira, eta Mariatxo ikus-ten duk bihurtze batzuekin hizketan.

—Hartu pandeletxea zerorrek —esaten dit Mariatxok—. Ireki labearen atetila eta hantxe edukiko dituzu.

Obeditu egiten diot Mariatxori, baina labearen atetila zabaltzen dudane-an ez dut han pandeletxerik ikusten, baizik eta ostruka-izter bat, hain doratua non urrez miniatua dagoela ere ematen duen, urrez miniatua eta paxa-ziruelez egindako koroa beltz eta distirante batekin: baina, kontuz, ez, paxa-ziruelek ez daukate bainbesteko ditzirarik, bi paxa-ziruelek behintzat kontrako itxura dute, bi kristal ilun eta opakoak dira... zeren, jakina, ez dira zinez paxa-ziruelak. Baizik eta bi begi, hildako gizon baten bi begiak. Ibrahim Ali Kismayuren bi begiak: bai, Ibrahim Ali Kismayu goseak hil zen Somalian; ze... azkenean ezin izan baitzuen bere leihotik ikusitako ostruka hura harrapatzerik izan.



Irakasleak ondo baino hobeto ezagutzen bazaitu ...



... Jadanik ez bazarete elkarrekin ongi konpontzen...



... Ikasteko teknika guztiak erabili badituzu ...



... Metodoak huts egiten badizu...



... Atzeko tropela utzi eta aurrera jotzeko prest bazaude ...



... eta batez ere ikasketekin duzun jarrera aldatu nahi baduzu ...



Klaseak euskaraz

BBB (BUP)

UBI (COU)

OHO (EGB)

LH (FP)




AKADEMIA

GEU

BABESAREKIN

Guatemala, 12 behea
(Francisco de Vitoria
Institutuaren atzealdean)

12 09 50
909 42 88 36



Arabak aurrera egitearekin batera, gure ingurugiroa berreskuratzen dugu

Arabako Foru Aldundiak, gure ingurugiroa berreskuratu eta errespetatuz, etorkizunari begira burutzen ditu eginkizunak. Herrilanak ingurugiroan txertatuz.

N-1eko autobide berria eta Aiara bailarako ur-horniketa sistema dituzu adibide egokiak.

**Diputación
Foral de Alava**

Departamento de Obras Públicas,
Transportes y Medio Ambiente



**Arabako
Foru Aldundia**

Herrilan, Garraio eta
Ingurugiro Saila

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa